



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko irailaren 25a

94. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Afganistanen hedaturik duen kontingente militarra erretira dezan. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diagnosi-azterlan bat egin dezan, udalen gizarte-zerbitzuetan langile nahiz aurrekontu alorretan dauden gabeziak hautemate aldera. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan San Adriángo Institutuan eskaintzen diren erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloi buruz. Ana Figueras Castellano andreak aurkeztu du (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Tuterako herritarrei zerbitzu emateko bulego orokorrari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (11. or.).

—Galdera, Iruñeko herritarrei zerbitzu emateko bulego orokorra abian jartzeari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (11. or.).

—Galdera, Radio Universidad de Navarrari eta Medios de Comunicación 21ri emandako administrazio-emakidak hutsaltzeari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (12. or.).

—Galdera, Lizarrako adimen-osasuneko egoitza eraikitzen hasi ez izanari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (13. or.).

—Galdera, gizarte larrialdiko kontusailari buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (13. or.).

- Galdera, Nafarroan urtebete baino gutxiago daramaten pertsonentzako laguntzei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko ea 2099. urtea amaitu aitzin elebitan errotulatu egonen den Baluarte, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko zergatik Baluartean ez den deus programatu aurtengo udan, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (15. or.).
- Galdera, azidaren osasuna zaintzeko nekazari elkarreentzako dirulaguntzen araudiari buruzkoa, María Gracia Iribarren Ribas andreak egina (15. or.).
- Galdera, Esako arrain-haztegia gaizkatarren hazkuntzaz arduratzen den enpresari buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (16. or.).
- Galdera, Bideko Autobiaren ustiapena dela-eta Parlamentuak onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (18. or.).
- Galdera, udal idazkaria Ororbiako Udalarekin partekatu beharri buruz Ezkabarteko Udalak egiten duen eskariari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (18. or.).
- Galdera, Lizarrako Santo Domingo eta San Jerónimo egoitzei buruzkoa, Ioseba Eceolaza Latorre jaunak egina (19. or.).
- Galdera, ikastetxe publiko berean eta hizkuntza eredu berean eskolatzeko zailtasunak dituzten familiei konponbide bat emate aldera aurreikusitako jarduketei buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina (19. or.).
- Galdera, Eslabako Santa Crisen aurkitutako piezak eta indusketa arkeologikoa direla-eta Gobernuak dituen planei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (20. or.).
- Galdera, 2009ko turismo kanpainaren balorazioari buruzkoa, Patxi Telletxea Ezkurra jaunak egina (21. or.).
- Galdera, Corellako Encofrados Martínez Mellado, S.L. enpresari buruzkoa, Txentxo Jiménez Hervás jaunak egina (21. or.).
- Galdera, NA-1700 eta NA-4011 errepideetako kontserbazio lanei buruzkoa, Aitor Etxarri Pellejero jaunak egina (22. or.).
- Galdera, Urbasako Jauregian aurreikusitako jarduketei buruzkoa, Román Felones Morrás jaunak egina (23. or.).
- Galdera, Nafarroako herrietan haur parketak jarri, kudeatu, mantentze-lanak egin eta kontserbatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat den ikasle/orduko kostua Zubiarte euskaltegi publikoan. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Atzerritarren eta immigranteen eskubideen bermea dela-eta Nafarroako Arartekoak dauzkan eskumenak garatzeari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina (27. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Garapenerako Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Jakina bada ere, gogora ekarri behar da gizateriaren arazo nagusienetako bat dela 1.150 milioi pertsonak egunean euro bat baino gutxiago dutela bizirauteko. Egoera hori bidegabea da eta aurre egin behar zaio, behin onartuta egoeraren oinarria dagoela Iparraldeko herrialde aberatsen eta Hegoaldeko herrialde pobretuen arteko desberdintasunezko egituretan.

Jadanik 1972an, Nazio Batuen Erakundeak erabaki zuen herrialde industrializatuetako gobernuek beren Barne Produktu Gordinaren % 0,7 lagatzea ekonomikoki behartsuen ziren herrialdeei, haietan garapen iraunkorra sustatze aldera. Hogei urte geroago, Rioko 1992ko gailurrean, proposamen hori berretsi egin zen, nahiz eta, bai lehen aldian bai bigarren horretan, proposamena ez den praktikan gauzatu, Europako iparraldeko herrialde batzuen salbuespen goraiagarria alde batera utzita.

Nafarroan, eta NBEK erabakitako gauza bera ez bada ere, 1994an Parlamentuak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen garapenerako laguntza ofizial gisa bidera zezan gastu-aurrekontuaren % 0,7, gastu finantzarioak, Estatuarentzako ekarpena eta toki entitateentzako transferentziak kenduta. Nafarroako Gobernuak konpromiso hori onartu egin zuen.

Aurrekontu-konpromiso horri 2000. urtera arte eutsi zitzaion. 2001etik aurrera, erreferentziatzko ehuneko hori galtzen hasi zen. Elkarren segidako aurrekontu-luzapenen eta Gobernuaren borondateirik ezaren ondorioz (gogorarazi behar da ezen, aurrekontu-luzapena gorabehera, aurrekontu orokorra urterik urte hazi egin zela: % 10,3, 2001ean; % 6,6, 2002n; eta % 4,9, 2003n), solidaritate-konpromiso hura hiru urtean ahuldu egin zen; hainbeste non 2003ko aurrekontuan ez zen ezta % 0,6ra ere iristen. Ezarian-ezarian erabakia bete gabe uzte horrek 5.052.620,78 euroko galera erreala eragin zuen lankidetzakontusailean.

Beheranzko joera hori aldatu egin zen 2004ko aurrekontuan, aurrekontuaren % 0,7ra iritsi baitzen (jakina, betiere kontuan izanda kalkulua egitean ez direla kontabilizatzen Estatuarentzako, eta toki entitateentzako ekarpenak eta gastu finantzarioak). Baina bai 2005ean, bai 2006an, berriro ere urratu egin zen erabakia, eta gastua berriro ere % 0,7 baino gutxiagokoa izan zen. Aurrekontuaren gutzitiko zenbatekoari dagokionez, 2005ean %

0,68 bideratu zen, eta aurrekontuak izan zituen elkarren segidako zenbait murrizketaren ondoren, gaur egun 0,50 bideratzen da garapenerako lankidetzarako.

Gaur egun, Nafarroa da garapenerako lankidetzara portzentualki baliabiderik gehien bideratzen duen Estatuko autonomia erkidegoa. Hala eta guztiz ere, eta konpromiso ugari hartu diren arren (Nafarroako Parlamentuak zenbait aldiz onetsi ditu, erabateko gehiengoz, lankidetzara % 0,7 bideratzearen aldeko mozioak), konpromiso zehatza urterik urte bete gabe utzi da, eta kontusaila ez da lege bidez (nahitaez bete beharrekoa, kasu honetan) finkatu; horrenbestez, bidean zehar lankidetzarako milioi ugari galdu dira.

Gainera, kontuan hartu behar da aurrekontuaren % 0,7 bera ere eskasa dela, oraindik ere oso urrun geratzen delako Estatuak berretsitako baina zenbait aldiz bete gabe utzitako konpromisotik, zeina baita % 0,7 bideratzea, baina Nazio Produktu Gordinarena; alegia, askoz ere kopuru handiagoa.

Garapenerako Lankidetzari buruzko Foru Legeko zioen azalpenak, Nazio Batuen irizpenari jarraikiz, gogorarazten du Nazio Produktu Gordinaren ehuneko 0,7ko kuota desiragarria dela garapenerako laguntza ofizial gisa, herrialde pobretuek giza garapen iraunkorra sustatzeko bitartekoetako beste bat gisa.

Jakina denez, Espainiako Gobernuaren konpromiso publiko bat dago, 2008rako Nazio Produktu Gordinaren % 0,5 garapenerako lankidetzara bideratzekoa, eta, 2012rako, Nazio Produktu Gordinaren ehuneko 0,7. Konpromiso hori bete dadin nahi baldin badugu, autonomia erkidegook ardura-kide behar dugu izan, gastu publikoan eta NPGn daukagun partaidetza-portzentajearen arabera funts-ekarpena eginez.

Lankidetzara bideratu beharreko aurrekontua kalkulatzeko, kontuan hartu behar dugu bai toki erakundeek bai estatukoek beren aurrekontuaren parte bat garapenerako lankidetzara bideratzen dutela. Hortaz, baldin eta Nafarroako Gobernuak administrazio publikoaren gastu publikoaren osotasunaren gaineko ehuneko jakin bat xedatzen badu, gobernu horrek bideratu beharreko baliabide-multzoa izanen da Nafarroako BPGren %0,7 kalkulatzetik irtendako kopuruari dagokiona.

2007ko abenduaren 11n, parlamentu-talde guztiok Pobreziaren aurkako Ituna sinatu genuen, "Pobreziarik ez Nafarroan" plataformarekin batera. Itun horretan hauxe adierazten da, literalki: "Nafarroako Gobernuak Gobernu Zentralarekin itunduko du nola parte hartuko duen Estatuan 2008rako eta

2012rako ezarritako helburuak lortzeko zereginen (NPGren % 0,5 eta % 0,7)." Espainiak eta Nafarroak garapenerako laguntza ofizial gisa ematen dutenaren kudeaketan erantzukizun-banaketa gaur egungo proportzioetan mantenduz helburu horiek betetzeko, eta datozen urteetan hazkunde ekonomikoak antzeko abaila izanen duelakoan, Nafarroako Gobernuak, 2008an, 22 milioi euro bideratu beharko zituen garapenerako laguntza ofizialerako, eta, 2012an, 31 milioi euro inguru.

Izan ere, 2008an, 22.842.346 euroko aurrekontua onetsi zen garapenerako laguntza ofizialerako, eta kopuru horretatik, azkenean, 20.699.795,97 euro exekutatu dira.

Ildo horretan, beraz, foru lege honen asmoa da Nafarroako Parlamentuak 1994ko urriaren 25ean onetsitako ebazpenean zehazturiko kontzeptu-esparrua gainditzea; esparru horretan, aurrekontu-esparruaren kalkulatzeko metodo gisa ezartzen zen Nafarroako Gobernuaren aurrekontuetan gastu finantzarioak, Estatuarentzako ekarpena eta toki entitateentzako transferentziak deduzitzea. Kontuan hartu behar da, bestalde, 2005eko urteaz geroztik, zerga-gastuak ere sartzen dira gastu gisa, eta, beraz, kalkuluak egiteko orduan horiek ere deduzitu egin behar dira. Gure Komunitateko Plan Zuzendariak berak (2007-2010) aipatzen du 1994ko akordioa gainditzea.

Izan ere, azken urteotan, kalkulu-eredua hone-lai zehaztu ohi da: garapenerako lankidetzara bideratutako gastu publikoak, Nazio Produktu Gordinarekin alderatuta. Horrela egiten du are Espainiako Gobernuak. Horrexegatik, kalkulu-irizpideak bateratu beharra dago, erreferentzia-formula bakarra definituz, eta ez hiru, orain arte bezala.

Aurrekoarekin bat, foru lege honen helburua da araututa uztea Nafarroako aurrekontu orokorren ehuneko finko bat urtero bideratu behar dela garapenerako lankidetzarako aurreikusitako kontusailen multzo osorako, "Pobreziaren aurkako Ituna" deritzon izenpeturiko akordioak puntualki betetze aldera. Urteroko kopurua horregatik finkatzen da erreferentzia modura hartuz administrazio publikoek parte hartzen duteneko Barne Produktu Gordinaren zatia.

Bizi garen munduan, agerikoak dira ezberdintasunak. Oinarrizko baliabideak eskuratze hutsa ere zaila gertatu ohi zaie herrialde askori.

Pobrezia desagertaraz dezakeen lehenbiziko belaunaldia gara, eta horrexegatik ere ekin behar diogu lan egiteari; are gehiago, gogoan izanik munduan 900 milioi pertsona daudela gose direnak, eta, aurreikuspenen arabera, munduan aurreten 2007an baino 50 milioi pertsona gehiago iza-

nen direla gose, munduko 86 herrialdeetatik 58k ez dutela oinarritzko hezkuntza unibertsala lortu, eta 2015erako ere ez dutela lortuko, 1.200 milioi pertsonak ez dutela ur edangarririk eskuratzen, eta gure planetako behartsuen % 70 emakumezkoak direla.

Nazio Batuen Garapen Programan argitaratutako zenbait txostenek argi eta garbi erakusten dute arrisku larria dagoela milurtekoko garapen helburuak munduko herrialderik gehienetan ez betetzea, gaur egungo joerek beren horretan jarraitzen baldin badute. Zenbakiak behar den abiaduran hobera ez egiteaz gain, atzerakada nabarmenak gertatu dira, batez ere Saharaz beherako Afrikan, non pobrezia mugaren azpitik dauden pertsonen kopuruak azken urteotan gorantz joaten jarraitu duen. Amerika Latinoan ere gora egin dute desberdintasunek azken bost urteotan.

Hori dela-eta, parlamentu-talde guztiok Nafarroan pobrezia aurkako itun bat sinatu genuen. Konpromiso bat harrarazten zigun ituna zen, bete-behar bat ezartzen ziguna; azken batean, norabide jakin batean bultzatzen gintuen ituna zen: solidaritatearen norabidean.

Pobrezia desagerraraztea eta garapenaren alde lankidetzan aritzea erronka moral bat da aberastutako herrialdeentzat. Horregatik, arlo honetan egindako lan instituzionalak ona behar du izan, nolakotasun- eta zenbatekotasun-ikuspegietatik.

Nafarroak garapenerako lankidetzara bideratzen duen laguntza sendotu ahal eta behar du, "Nafarroako Produktu Gordin" deritzonaren % 0,7 bideratuz, erreferentzia bakartzat administrazio publikoen gastu publikoaren osotasuna hartuz; alegia, urtero argitaratzen den datu bat. Horixe da Nafarroako erakundearen konpromisoa, eta horixe izan behar da apustua.

Bestalde, jadanik 2008ko aurrekontuetan aintzat hartu zen Garapenerako Lankidetzaren Agentzia eratzea, baina, azkenean, apustu hori ez da aurrera eraman. Hori horrela, foru lege honen asmoa da agentzia horren eraketari bultzada bat ematea; izan ere, agentzia horrek bizkortasuna eman liezaioke garapenerako lankidetzaren inguruko politikari, eta zerbitzuak pairatzen dituen buxadura-arazoak konpondu.

Arau-testuak neurririk handienez eragotzi nahi du garrantzitsuak eta oinarritzaileak diren zerbitzuen esternalizazioa, hala nola Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundeentzako dirulaguntzei buruzko txostenen azterketa, jarraipen eta kontrolarena. Horregatik, lege honek irizpide orokor bat eta konpromiso bat ezartzen ditu, zuzeneko kudeaketa hori gauzatzeko, betiere gomenda-

garria baita administrazio publikoentzat, jadanik aipaturiko Plan Zuzendarian (2008-2010) zehazturikoaren ildotik, zeinaren 4.2.2. puntuan adierazten baita: "ildo horretatik, eta Nafarroaren lankidetzaren esparruan, kiomenigarritzat jotzen da bere giza lantaldea eta lantalde teknikoa indartzea, betiere aurrekontu-baliabideen eta -lerroen, aniztasunaren eta konplexutasunaren arabera."

1. artikulua. Garapenaren Aldeko Lankidetzari buruzko martxoaren 9ko 5/2001 Foru Legearen 2. artikuluari bi letra berri, f) eta g), gehituko zaizkio, eta honakoa izanen da beren testua:

"f) Hemen ezarritako helburuak behar bezala betetzeko, gastu-aurrekontuaren zenbatekoaren ehuneko jakin bat garapenerako lankidetzara bideratuko da, Nafarroako Aurrekontu Orokorreari loturik, betiere.

2010ean bideratuko da Nafarroako NPGaren ehuneko 0,6 adinako diru-kantitatea; 2011n, % 0,65; eta 2012an eta hurrengo urteetan, Nafarroako NPGaren % 0,7. Kantitate horiek kalkulatu dira Nafarroako Gobernuak administrazio publikoen gastu publikoaren osotasunean daukan partaidetza-portzentajearen arabera, eta portzentaje horren proportzio berekoak izanen dira.

g) Nafarroako Gobernuak Gobernu Zentralarekin itunduko du nola parte hartuko duen Estatuan 2012ra arte garapenerako lankidetzari dagokionez ezarritako helburuak lortzeko zereginean."

2. artikulua. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Departamentuak Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia eratuko du, xede izanen duena garapenerako laguntzen politikak aplikatzean eraginkortasuna eta lastertasuna hobetzea.

3. artikulua. Garapenerako lankidetzaren esparruan, GGKE-entzako dirulaguntzen espedienteen azterketa, jarraipen eta kontrola Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuak kudeatuko ditu zuzenean, langile berekiekin, harik eta Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia eratzten den arte.

4. artikulua. Edozer arrazoi dela eta, Nafarroako aurrekontu orokorretan ezarritako lankidetzafuntsaren gerakin bat baldin badago, dirulaguntzetarako deialdia egingen da berriz ere, foru lege honetan ezarritakoan oinarrituz. Epeei dagozkien arrazoiengatik nahiz beste inguruabar batzuegatik beste deialdi hori egitea ezinezkoa baldin bada, gerakineko kopurua Lankidetzaren Nafarroako Agentziak kudeatuko du zuzenean.

Lehen xedapen gehigarria. Foru lege honek indarra hartu eta urtebeteko epean, behar den

erregelamendua garatuko da, Lankidetzaren Kontseiluaren parte-hartzearekin. Erregelamendu horretan zehaztuko dira eginkizunak, organigrama, aurrekontua eta Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentziaren lana ahalbidetzen duten gainerako gaiak.

Bigarren xedapen gehigarria. 3. artikuluan xedatua behar bezala betetze aldera, Nafarroako

Gobernuak hilabeteko epean plan bat aurkeztuko du, langile gehiago kontratatze eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzua berregituratzeko, Garapenerako Lankidetzaren Nafarroako Agentzia eratu bitartean.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Afganistanen hedaturik duen kontingente militarra erretira dezan.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Afganistanen hedaturik duen kontingente militarra erretira dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatzeko:

Espainiako soldaduak Afganistanen egotea kontraesanean dago oraingo Gobernuaren kanpo politikarekin, zibilizazioen arteko aliantzaren estrategiarekin, hain zuzen ere.

Irailaren 11z geroztik estatubatuarrek Afganistanen eginiko esku-hartzea –Askatasun iraunkorra izeneko operazio militarra– bat dator, hasieratik, prebentzio-gerraren estrategiarekin eta terrorismoaren aurkako borroka militarrenarekin, eskualde horretan dituen interes estrategikoen esparruan.

Afganistanen bakea eta segurtasuna ezartzearen alde Nazio Batuek eman dituzten ebazpenak gorabehera, egoera defini daiteke esanez prozesuak atzerakada nabarmena izan duela, bai lurralde hartan gertatzen ari diren borroka latzen ondorioz, bai segurtasunarekiko giza eskubideekiko errespetu-ezagatik; izan ere, herrialdea egiazko narkoestatu bilakatu da, zeina gerraren jauntxo batzuek eta besteek kontrolatzen baitute. Afganistango Errepublika Islamiarreko lehendakari Hamid Karzai berak behartuta ikusi du bere burua AEBko tropei eskatzera neurritz joka dezaten eta populazio zibilar eragiten dioten bereizi gabeko zigorkintzak ekidin ditzaten.

Gainera, soldadu espainiarrak nahasten ari dira NATOk adosturiko gorakada militarrean –ISA-Fen misioak eta *Askatasun iraunkorra* izeneko operazioak bat egin dute–, bai eta soldadu kopuruaren handitzean ere.

Aitzitik, egin beharko genukeena da ahalegin hori esparru zibilera berbideratu, ekonomiaren eta produkzioaren baterako garapena sustatzeko neurrien bitartez, eta elkarlan soziosanitario eta kulturalaren bitartez, horrela Afganistango prozesu demokratikoa erraztuz.

Horregatik guztiagatik, gure tropak Afganistandik erretiratzeko behin betiko egutegi bat ezarri beharko litzateke, eta aldi berean, gure tropek bake-eginkizunetan parte hartzeko irizpideak ezarri beharko lirateke, “zibilizazioen aliantza” deritzon kanpo politikaren ildoetara jarraituz.

Aldiz, Espainiako Gobernuak erabaki du 200 soldadu gehitzea gaur egun Afganistanen dauden 800 militarrei. Eta ez dago prest erretiratzeko egutegi bat zehazteko bost urte barru baino lehen.

Afganistango egoera militarrek gero eta antz gehiago du gerra ireki batena, non ezinezkoa baita segurtasunerako edo garapenerako progra-

mak gauzatzea; baina, horretaz gain, egoera politikoaren hondamena hain da larria, ezen Nazio Batuen Erakundeak berak salatu baitu herrialdean lehendakaria hautatzeko duela gutxi eginiko hauteskundeetan iruzur handi bat izan dela.

Eta giza eskubideen errespetuari dagokionez, beharrezkoa da salatzea, esaterako, gaur egungo Gobernuak, NATOren babesarekin, onetsitako zenbait lege; izan ere, emakumeekiko baztertzailak eta iraingarriak dira, talibanen erregimenean indarrean zeudenak bezainbeste.

Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du:

1. Egutegi bat onetsi dezan, Afganistanen dauden soldaduak handik berehala erretiratzeko.

2. Gaur egun Afganistango operazio militarretara bideratzen diren baliabide ekonomiko eta materialak baliatzea kooperazio- eta baterako garapen-plan bat prestatzeko, herrialde horren garapen humanitarioa eta zibila errazte aldera.

3. Erabaki hau igortzea Espainiako Gobernuko Lehendakartzara, Kanpo Arazoetako Ministeriora, Diputatuen Kongresura eta Senatara.

Iruñean, 2009ko irailaren 11n

Eleduna: Ion Erro Armendáriz

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diagnosi-azterlan bat egin dezan, udalen gizarte-zerbitzuetan langile nahiz aurrekontu alorretan dauden gabeziak hautemate aldera.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita diagnosi-azterlan bat egin dezan, udalen gizarte-zerbitzuetan langile nahiz aurrekontu alorretan dauden gabeziak hautemate aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hama-bietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Gizarte Gaietako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Gaur egungo krisi ekonomikoaren ondorio nabarmenetako bat da zergen alorreko erakunde eskudunen zerga-bilketaren murrizketa.

Duela gutxi, jakinarazi zen Nafarroako Gobernuaren zerga-bilketa % 8 jaitsi zela eta, aurreikusi daitekeenez, toki entitateen zerga-bilketa ere jaitsi egingen da, jarduera ekonomikoaren eta eraikuntzaren gutxitzearen ondorioz.

Kontuan hartu behar da 2009an % 13,62 murriztu dela Nafarroako Gobernuak toki entitateei egiten dien ekarpena, transferentzia arruntzen funtsa eta kapital transferentziana handitu egin badira ere. Horri gehitzen badiogu 2009an murriztu egingen direla udalen berezko dirusarrerak, agerikoa da udalek zailtasun handiak izanzen dituztela ematen dituzten zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion gastu arruntei aurre egiteko.

Zerbitzu horien artean, eta krisi ekonomikoaren ondorioz, bereziki esanguratsua da udalen gizarte zerbitzuen egoera. Zalantzarik gabe, zerbitzu horien eskaera handitu egin da krisiaren ondorioz. Halaber, handitu egin da udal esparruko gizarte laguntzen eskaera ere, hala nola ezohiko laguntzena, jantokirako bekena eta abarrena. Eskaeraren handitze horren ondorioz, itxaron zerrendak sortu dira —orain arte ezezagunak ziren

alor horretan— eta udal kontusailak handitu egin dira udal ordenantzek bermatutako prestazioei aurre egite aldera.

Hori dela eta, eta ez badugu nahi krisialdiak gehien ukitu dituen gizarteko sektoreen egoera okerrera egin dezan, funtsezkoa da Nafarroako Gobernuak udalei gizarte gaietarako ematen dizkiren laguntzak handitzea, udalek aurre egin ahal izateko berezko dirusarreraren murrizketari eta krisialdiaren ondoriozko gizarte zerbitzuen eskaeraren handitzeari.

Oinarrizko gizarte zerbitzuen bidez, arazo sozialak dituzten pertsonak lehen harremana —eta, hori dela eta, garrantzitsuena— izaten dute Administrazio Publikoarekin. Horregatik, programa eta prestazio guztiak, bermatutakoak eta bermatu gabeak, ziurtatu behar dira.

Horrekin lotuta, uste dugu garrantzitsua dela aztertzea zein den udaletako gizarte zerbitzuen egoera eta haien arazo eta eskakizun nagusiak zeintzuk diren jakitea.

Hori guztia dela eta, Nafarroa Bai parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean azterlan-diagnosi bat egin dezan, toki entitateekin lankidetzan, detektatze aldera udaletako gizarte zerbitzuetako langile eta aurrekontu gabeziak, bai eta gehien eskatzen diren prestazio sozialak ere, modu argi eta orokorrean ezagutzeko zein den krisiak oinarrizko gizarte zerbitzuetan duen eragina.

Iruñean, 2009ko irailaren 17an

Foru parlamentariak: Maiorga Ramírez eta Patxi Zabaleta

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait neurri har ditzan San Adriángo Institutuan eskaintzen diren erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloei buruz.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zenbait neurri har ditzan San Adriángo Institutuan eskaintzen diren erdi mailako eta goi mailako heziketa zikloei buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano andreak, Lege-

biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, dagokion batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

San Adriángo Bigarren Hezkuntzako Institutura berriki egin dudatan bisita batean, institutu horrek dituen instalazio egokiak ikuskatzeko parada izan dut.

Ikastetxe horretako irakaskuntza-eskaintzaren barrenean daude elikagai industrien ziklo ertaina eta goi-mailakoa. Ikusitakoaren eta ikastetxeko zuzendaritzak emandako azalpenen arabera, badirudi, a priori behintzat, oso ongi prestatuta daudela.

Zuzendaritzak adierazi digunez, ziklo hori, printzipioz erakargarria izan beharko litzatekeena irakasten den eskualdean, ez da behar bezain arrakastatsua izaten ari, eta horregatik, ez dira betetzen eskaintako plaza guztiak; horrenbestez, garrantzitsuak diren baliabide eta instalazio batzuk behar baino gutxiago ari dira erabiltzen.

Hori dela-eta, ondoko erabaki-proposamena aurkeztu dugu:

• Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren baliabideak jar ditzan, San Adriánen inguruko herrietako ikasleak bertako Bigarren Hezkuntzako Institutura lekualda daitezzen errazteko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Errioxako autonomia erkidego-

arekin berriki sinaturiko akordioak zabalago egite-
ra, halako moduz non erkidego horretako ikasleak
ere San Adriángo ikastetxean matrikulatu ahal izan-
en baitira.

Iruñean, 2009ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

F saila:
GALDERAK

Galdera, Tuterako herritarrei zerbitzu emateko bulego orokorrari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, Tuterako herritarrei zerbitzu emateko bulego orokorrari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan

José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2009ko lehen bilkuraldiaren hasiera-partean, Parlamentuaren Osoko Bilkurak talde sozialistaren mozio bat onetsi zuen, zeinaren bitartez Nafarroako Gobernua premiatzen baitzen herritarrei zerbitzu emateko bulego orokor bat jar eta abiaraz zezan Tuteran; zehazki, 2009ko otsailaren 26an izan zen hori.

Horri buruz, honakoa jakin nahi dut:

– Orain arte, Nafarroako Gobernuak zer urrats egin ditu bulego hori abiarazteko?

– Zein izanen da herritarrei zerbitzu emateko Tuterako bulego orokor horren abiarazte-eguna?

Iruñean, 2009ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Iruñeko herritarrei zerbitzu emateko bulego orokorra abian jartzeari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko herritarrei zerbitzu emateko bulego orokorra abian jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zenbait aldiz adierazi izan du, berari talde sozialistak eskaera egin

ondoren, asmoa daukala Iruñean herritarrei zerbitzu emateko bulego bat abian jartzeko. Horri buruz, honakoa jakin nahi dut:

– Orain arte, Nafarroako Gobernuak zer urrats egin ditu bulego hori abiarazteko?

– Zein izanen da herritarrei zerbitzu emateko Iruñeko bulego orokor horren abiarazte-eguna?

Iruñean, 2009ko ekainaren 11n

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Radio Universidad de Navarrari eta Medios de Comunicación 21ri emandako administrazio-emakidak hutsaltzeari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, Radio Universidad de Navarrari eta Medios de Comunicación 21ri emandako administrazio-emakidak hutsaltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregela-

menduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2009ko lehenbiziko bilkuraldiaren hasiera-partean, 2009ko otsailaren 26an, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen espedientea hasi zezan Radio Universidad de Navarra eta Medios de Comunicación 21 enpresei emandako irati-hedapeneko administrazio-emakidak hutsaltzeko, lizentzia ematerakoan haiek beren gain hartutako betekizun eta betebeharren ez-betetze larriengatik.

Horri buruz, honakoa jakin nahi dut:

Zer urrats, direnak direlakoak ere, egin ditu Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren erabaki hori betetze aldera?

Iruñean, 2009ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Lizarrako adimen-osasuneko egoitza eraikitzen hasi ez izanari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako adimen-osasuneko egoitza eraikitzen hasi ez izanari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak Legebiltzarren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Lizarrako adimen-osasuneko egoitzari buruzko galdera.

Zergatik ez da oraindik eraikitzen hasi Lizarrako adimen-osasuneko egoitza, Parlamentu honek 2008ko apirilaren 16an onetsitako mozio batek eskaera hori egin zion arren?

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, gizarte larrialdiko kontusailari buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, gizarte larrialdiko kontusailari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak ahoz erantzun dezan Legebiltzarren Osoko Bilkuran:

Gizarte-larrialdiko kontusailari buruzko galdera.

Inolako prestaziorik ez daukaten pertsonen buruz Cárítasek aurkezturiko datuak aintzat harturik, behar adinakotzat eta egokitza jotzen al duzu gizarte-larrialdiko laguntzen kontusaila?

Iruñean, 2009ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, Nafarroan urtebete baino gutxiago daramaten pertsonentzako laguntzei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroan urtebete baino gutxiago daramaten pertsonentzako laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak ahoz erantzun dezan Legebiltzarren Osoko Bilkuran:

Nafarroan urtebete baino gutxiago daramaten pertsoneri buruzko galdera

Cáritas-ek Nafarroan erroldatuta urtebete baino gutxiago daramaten eta bere laguntza behar duten pertsoneri buruz aurkezturiko datuak aintzat harturik, zer neurri hartzeko asmoa dauka zure departamentuak?

Iruñean, 2009ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, jakiteko ea 2009. urtea amaitu aitzin elebitan errotulatu egon den Baluarte.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko ea 2009. urtea amaitu aitzin elebitan errotulatu egon den Baluarte.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurak, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudi-

an xedatutakoaren arabera, Baluarte Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditorioa dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuako Kultura eta Turismo Departamentuko kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

Nafarroako Parlamentuak behin baino gehiagotan zuzen eta garbi agindu dio Nafarroako Gobernuari Baluarte Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditorioa euskaraz ere errotulatzeko. 2009ko aurrekontuetan 6.000 euroko diru-saila ere onartu zuen Nafarroako Parlamentuak, nafarren borondatea ordezkatzeko duen honek, hain zuzen ere.

2009. urtean amaitu aitzin elebitan errotulatu egon al da Baluarte Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditorioa?

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, jakiteko zergatik Baluarten ez den deus programatu aurtengo udan.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, jakiteko zergatik Baluarten ez den deus programatu aurtengo udan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Patxi Telletxea Ezkurra, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko araudiaren xedatutakoaren arabera, Baluarte Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditorioa dela-eta, ondoko galdera egiten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuko Kontseilariak ahoz erantzun diezaion Legebiltzarreko Osoko Bilkuran.

2009ko udan Baluarte Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditorioak ez du eskaintza kulturalik eskaini. Nafar guztion dirutza ederra erabili zen auditorioa egiteko, zergatik ez da deus programatu pasa den uda honetan?

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, azientaren osasuna zaintzeko nekazari elkarreentzako dirulaguntzen araudiari buruzkoa.

MARÍA GRACIA IRIBARREN RIBAS ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Gracia Iribarren Ribas andreak aurkeztutako galdera, azientaren osasuna zaintzeko nekazari elkarreentzako dirulaguntzen araudiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ribaren Ribasek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu dio Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariari, Legebiltzarren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Azientaren osasuna zaintzeko elkarreentzako dirulaguntzen arauketa-oinarriak ezartzen dituen 2009ko apirilaren 30eko 784/2009 Errege Dekretuan ezarritako zer puntu dauka asmoa Nafarroako Gobernuak aurtengo ekitaldirako laguntzei buruzko foru aginduan jasotzeko, eta zergatik departamentuak gaur den egunean oraindik ere ez du onetsi laguntza horiek arautzen dituen foru agindua?

Iruñean, 2009ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: M.^a Gracia Iribarren Ribas

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari M.^a Gracia Iribarren

Galdera, Esako arrain-haztegia gaizkataren hazkuntzaz arduratzen den enpresari buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Esako arrain-haztegia gaizkataren hazkuntzaz arduratzen den enpresari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

2009ko apirilean, parlamentari honek zenbait galdera egin zituen, Esako arrain-haztegia gaizkataren hazkuntzaz arduratzen den enpresari buruz. Jakinik Navarra Food S.L. sozietateak, hots, instalazioak Piscifactoría de Sierra Nevada S.L.ri saldu zizkiona eta gaizkataren hazkuntza kudeatzen ari dena, zorrak zeuzkala Foru Ogasunarekin, parlamentari honek honakoa jakin nahi du:

1. Zen urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak zorrak kobratzeko?

2. Nolatan izan daiteke Nafarroako Gobernua, Sociedad de Desarrollo de Navarra S.A. (SODENA) sozietatearen bitartez, bere sozioetako batekin zorretan dauden enpresen akzioduna?

3. Nafarroako Gobernuak, zeina gaur egun akzioduna baita, Navarra Food S.L.ko sozio ohiekin batera, Piscifactoría de Sierra Nevada S.L. enpresan, ba al daki zenbait kopuru zor zaizkiela Gizarte Segurantzari, Esako Udalari eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari?

4. Piscifactoría de Sierra Nevada S.L.ren akziodun bihurtu aurretik, Nafarroako Gobernuak aztertu al du Navarra Food S.L.ren aktiboen esku-

aldaketa-prozesuan ustezko ondasun-ostentzerik izan ote den? Baiezkoan, zer-nolako erantzun emateko asmoa dauka Nafarroako Gobernuak balizko erreklamazioei?

Zenbait ekitalditan, hala nola Navarra Gourmet-Vive las Verduras kongresuan, Nafarroako Gobernuak "Caviar del Reyno" iragarri du, marka erregistratu eta ziurtagiri ekologikodun gisa.

5. Nola merkaturatu daiteke marka hori, baldin eta gaizkatek hamabost urteko epea behar badute ekoizten hasteko?

6. Egia al da merkaturatzen ari den produktua ez dela Nafarroan ekoizten, nahiz eta "Caviar del Reyno" izendapena duen? Aztertu al ditu Nafarroako Gobernuak aurkeztu ahal dizkioten balizko erreklamazioak?

7. Nafarroako Gobernuak ba al daki Piscifactoría de Sierra Nevada S.L. sozietatea inolako baimenik gabe ari dela bere jarduera aurrera eramaten?

8. Ohikoa al da Nafarroako Gobernuak bere enpresa-taldearen bitartez akziodun gisa parte hartzen dueneko enpresak, hala nola Piscifactoría de Sierra Nevada S.L., altan ez egotea Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan, beren jarduera egiteari dagokionez, nola den sozietate horren kasua, zeinak urtebetez jardun baitu? Zer urrats egin dituzte Nafarroako Zerga Agentziak eta Lan Zuzendaritza Nagusiak?

9. Zein egunetan bihurtu zen Nafarroako Gobernua Piscifactoría de Sierra Nevada S.L. sozietateko akziodun, dela zuzenean, dela bere enpresa-taldearen bitartez, eta zein izan ziren akziodun bihurtze aldera hartutako erabakiak eta eginiko txostenak? Zer kopuru inbertitu dira kontzeptu guztietan? Erabakien edo txostenen kopiak.

10. Zein egunetan erregistratu zen "Caviar del Reyno" marka, eta zer arrazoi izan ziren horrela jokatzeko? Nork dauka marka horren erabilera, eta zer eskubide eta betebeharrak sortzen zaizkio hortik Nafarroako Gobernuari edo bere enpresa-taldeari?

11. Nafarroako Gobernuak ba al daki Abeltzaintza Zerbitzuko zuzendariak gaizkatarekin lan egiteko proba baterako emandako behin-behineko baimena iraungita dagoela duela zenbait hilabete-

tatik, eta gaur egun jarduera hori legez kanpo egiten ari dela?

12. Nafarroako Gobernuak ba al daki Esako Udala jarduera hori instalatzearen aurka dagoela? Zer dela-eta ari da urratzen Nafarroako Gobernu bazkidea deneko enpresa bat ingurumen- eta hiri-gintza-babesaren alorreko legedi guztia?

13. Ba al dago Nafarroako Gobernuko funtzionariorik, eta zehazki, Landa Garapen eta Ingurumen Departamentukorik, Piscifactoría de Sierra Nevada S.L. sozietateko sozioetakoren baten familiartekoa denik?

14. Nafarroako Gobernuak ba al daki sozio deneko enpresak, Piscifactoría de Sierra Nevada S.L.k, ez daukala Ebroko Konfederazio Hidrografiakoaren baimenik jarduerako urak isurtzeko? Ohiko jokamoldea al da akziodun gisa zuzenean edo zeharka, bere enpresa-taldearen bitartez, Nafarroako Gobernuak parte hartzen dueneko enpresek ur-arloko legedia ez betetzea?

15. Nafarroako Gobernuak ba al daki gaizkatarren jarduerarako beharrezkoa den lubeta ez dela eraiki, eta Esako urtegiak ura askatuz gero, gaizkatak Aragoi ibaira aterako direla, zeina toki horretan Europako Batasunaren Intereseko Leku baita? Nafarroako Gobernuari posible iruditzen al zaio

gaizkatek, espezie inbaditzailea izaki, Tortosaraino bitartean bizi-mota guztiak suntsitzea? Nolako kalte-ordaina emateko asmoa du Nafarroako Gobernuak balizko ingurumen-hondamendi bat gertatuz gero?

16. Piscifactoría de Sierra Nevada S.L.k inolako baimenik gabe eginiko jarduerak direla-eta inolako ekintzarik abiatu al du Foruzaingoak? Ekintza horien berri-emateen kopiak.

17. Jarduera horiek Osasun Publikoaren Institutuari jakinarazi al zaizkio?

18. Nafarroako Gobernuko Lurzoru Urbanizagarriaren Atalak ba al daki Piscifactoría de Sierra Nevada S.L.k obrak inolako lizentziarik gabe, ezta udalean eskatutakorik gabe ere, egin dituela? Jokabide hori ohikoa al da Nafarroako Gobernu edo bere enpresa-taldea sozioak direneko enpresetan? Zer dela-eta ez da inolako zehapen-espedienterik egin?

19. Patenteen eta marken erregistroari jakinarazi al zaio "Caviar del Reyno" gisa merkaturatzen edo iragartzen den kabierra Granadan ekoizten dela?

Iruñean, 2009ko irailaren 10ean

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Bideko Autobiaren ustiapena dela-eta Parlamentuak onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, Bideko Autobiaren ustiapena dela-eta Parlamentuak onetsitako mozioa betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatzizko erantzuna eman diezaion:

2009ko martxoaren 12an, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak mozio bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen Donejakue bideko autobia esleitzeko, erakitze eta ustiatzeko baldintza-orrien eta kontratuen ondoriozko zorra berriro dimentsiona zezan. Hori dela eta, jakin nahi dugu:

Zer urrats, direnak direlakoak ere, egin ditu Nafarroako Gobernuak Parlamentuaren erabaki hori betetze aldera?

Iruñean, 2009ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, udal idazkaria Ororbiako Udalarekin partekatu beharrari buruz Ezkabarteko Udalak egiten duen eskariari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako galdera, udal idazkaria Ororbiako Udalarekin partekatu beharrari buruz Ezkabarteko Udalak egiten duen eskariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztánek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera hau aurkeztu du, Toki Administrazioako kontseilariak idatzizko erantzuna eman diezaion:

– Departamentu horrek jaso al du, Nafarroako Toki Entitateen Mapa izanzen denari buruzko dokumentuetan edo proposamenetan, Ezkabarteko Udalak eginiko eskaera, udal idazkariaren plaza Ororbiako Udalarekin ez partekatzearena?

– Ezkabarteko Udalaren eskaera horri buruz zer iritzi daukazu?

Iruñean, 2009ko irailaren 11n

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán

Galdera, Lizarrako Santo Domingo eta San Jerónimo egoitzei buruzkoa.

IOSEBA ECEOLAZA LATORRE JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ioseba Eceolaza Latorre jaunak aurkeztutako galdera, Lizarrako Santo Domingo eta San Jerónimo egoitzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorrek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Lizarrako Santo Domingo eta San Jerónimo egoitzei buruzko galdera

- Lizarrako Santo Domingo egoitzaren lekualdatzea zein fasetan dago?

- Departamentuak zer alternatiba eskaintzen du lekualdatze horren ordez, eta zer arrazoi argudiatzen ditu horretarako?

- Zer deritzozu Santo Domingo egoitza Santa Klara komentura lekualdatzearen proposamenari?

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Ioseba Eceolaza Latorre

Galdera, ikastetxe publiko berean eta hizkuntza eredu berean eskolatzeko zailtasunak dituzten familiei konponbide bat emate aldera aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako galdera, ikastetxe publiko berean eta hizkuntza eredu berean eskolatzeko zailtasunak dituzten familiei konponbide bat emate aldera aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Victoria Arraiza Zorzanok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Hezkuntza kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Zioak

Ikasturte honetan Sarrigurengo ikastetxe publiko irekiko da, zeinetan hizkuntza-eredu ezberdinak irakatsiko baitira. D eredua, zehazki, ez da Lehen Hezkuntzan irakasten, baina bai, ordea, Haur Hezkuntzan. Erabaki horren arabera, zenbait familiak zailtasunak topatzen dituzte beren seme-alaba guztiak hizkuntza-eredu berean eskolatuta edukitzeko, hezkuntza-maila ezberdinetakoak izanez gero. Familia horiek Hezkuntza Departamen-

tuari eskatzen diote berma dezala beraiek aukeratuak hizkuntza-eredua irakasten deneko ikastetxerako garraioa; kasu honetan, Mendigoiti ikastetxe publikorakoa.

Sarrigurenen sorturiko problema ez da soilik herri horretakoa: Iruñeko beste toki batzuetan ere badaude familiak, beren bizilekutik oso urrun dauden ikastetxe publikoetara jo beharra daukatenak, beren seme-alabak eskolatu ahal izateko, esate

baterako, atzerriko hizkuntza bat eskaintzen duen ele biko eredu batean.

Galderaren testua

Zer urrats egiteko asmoa dauka Hezkuntza Departamentuak, familia askoren bizitzan eragiten duten disfuntzio horiei irtenbide bat emateko?

Iruñean, 2009ko irailaren 15ean

Foru parlamentaria: Victoria Arraiza Zorzano

Galdera, Eslabako Santa Crisen aurkitutako piezak eta indusketa arkeologikoa direla-eta Gobernuak dituen planei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, Eslabako Santa Crisen aurkitutako piezak eta indusketa arkeologikoa direla-eta Gobernuak dituen planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua aginduta-koari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Irailaren 11n, Corpas jauna Eslaban izan zen, Santa Criseko indusketa arkeologikoetan. Toki horretan egiten ari diren indusketetan, marmol zurizko eta tamaina naturaleko estatua bat, buru-

rik gabekoa, aurkitu da, eta Eslabako Udalean dagoena bezalako zenbait txapitel.

Hilaren 11n bertan, Nafarroako Gobernuak pieza horiek erretiratu egin zituen, aztertzea eramateko; behin-behineko, uste dugunez. Hori dela-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Zer plan dauzka Nafarroako Gobernuak pieza horietarako nahiz indusketetan ager daitezkeen balizko beste batzuetarako?

2. Zergatik ez zaio publizitaterik eman hainbeste garrantzia duen aurkikuntza bati? Seguratsun-arrazoiengatik da, ala aurkikuntza horiek isilarazten dira, besterik gabe, Vianako Printzea erakundeak indusketa espoliatzeko?

3. Zer asmo dauzka Nafarroako Gobernuak hainbesterainoko garrantzia eta hedaduraz nola arte-aberastasunez hain handia den indusketa honetarako?

4. Ba al dago epe luzeko planik, indusketak hedatu eta zaintzeko, haiek jendeari erakustearren?

5. Piezak aurkikuntza-tokitik behin-behineko eraman al dira?

Iruñean, 2009ko irailaren 16an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, 2009ko turismo kanpainaren balorazioari buruzkoa.

PATXI TELLETXEA EZKURRA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkeztutako galdera, 2009ko turismo kanpainaren balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Telletxea Ezkurra, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Turismo Departamentuak idatziz erantzun diezaion:

Zer iritzi dauka Nafarroako Gobernuak 2009ko udako turismo-kanpainari buruz?

Si vienes a Navarra, las visitas te salen gratis kanpaina nola balioesten da?

Iruñean, 2009ko irailaren 14an

Foru parlamentaria: Patxi Telletxea Ezkurra

Galdera, Corellako Encofrados Martínez Mellado, S.L. enpresari buruzkoa.

TXENTXO JIMÉNEZ HERVAS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txentxo Jiménez Hervas jaunak aurkeztutako galdera, Corellako Encofrados Martínez Mellado, S.L. enpresari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Txentxo Jimenez Hervas, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hauek egin dizkio Nafarroako Gobernuak Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

1. Departamentu horrek ba al daki Encofrados Martínez Mellado, S.L. enpresan (IFZ: 831752348), zeinak sozietate-helbidea Corellan baitauka, litekeena dela etorkin diren langileen babesgabetasun-egoerak gertatzen ari zela, enpresaren abusuak eta aprobetxamendua tarteko, bai lan-harremanetan bai soldadak ordaintzeari dagokionez?

2. Departamentu horretako lan-ikuskatzaitzako zerbitzuek enpresa horren ikuskapen erregularririk egiten al dute, edo horrelakorik inoiz egin al dute? Baiezkoan, horri buruz eginiko txostenak eskatzen ditut.

3. Aipaturiko Encofrados Martínez Mellado, S.L. enpresa hori inolako herri-lanen esleipenetan onuradun izan al da zuzenean, edo herri-lanen esleipenen onuradun suertaturiko enpresek azpikontratatu izan al da? Baiezkoan, esleipen horien kopia jaso nahi dut.

Iruñean, 2009ko irailaren 18an

Foru parlamentaria: Txentxo Jiménez Hervas

Galdera, NA-1700 eta NA-4011 errepedeetako kontserbazio lanei buruzkoa.

AITOR ETXARRI PELLEJERO JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Aitor Etxarri Pellejero jaunak aurkeztutako galdera, NA-1700 eta NA-4011 errepedeetako kontserbazio lanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejerek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari, idatziz erantzun diezaion:

Egunotan, zorua sendotzeko eta margotzeko lanak egiten ari dira A-15 autobian, Lekunberritik

Gipuzkoarekiko mugarainoko tartean, Donostiara-ko norabidean. Halaber, berriki horrelako lanak egin dira Iruñerako norabidean.

Parlamentari honek 2009ko ekainaren 5ean, Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariarengandik idatzizko erantzuna jaso zuen, NA-1700 eta NA-4011 errepedeen egoerari buruz eginiko galdera batzuei emandakoa, eta erantzun horretan esaten zen Nafarroako Gobernuak errepede horien kontserbazio arrunteko lanak eramanen zituela aurrera (bideko zuloak konpontzea, belar-sastrakak garbitzea, garbiketa, margoketa eta zoru-sendotzeak, eta abar).

Kontuan harturik A-15 autobien hurbiltasuna eta lehenago aipaturiko errepedeetako tarte batzuetan zoruak erakusten duen egoera kaskarra, parlamentari honek ondokoa jakin nahi du:

Nafarroako Gobernuak NA-1700 eta NA-4011 errepedeen kontserbazio-lanak (zoru-konponketak eta margotze-lanak) egingen al ditu, makinak A-15 autobian, Lekunberritik Gorritirako tartean, lanean ari direla aprobetxatuz?

Iruñean, 2009ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Aitor Etxarri Pellejero

Galdera, Urbasako Jauregian aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

ROMÁN FELONES MORRÁS JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Román Felones Morrás jaunak aurkeztutako galdera, Urbasako Jauregian aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, idatziz erantzuteko.

Zioen azalpena

Azken hogeitun urteotan, Nafarroako Gobernuak arduradun une bakoitzean izandakoek askotan iragarri dituzte, zuzenean nahiz zeharka, Urbasako jauregia dela-eta taxuturiko planak, berehalakoak edo ez hain berehalakoak.

Halaber, eraikin horren egoeraren inguruko kezka ere behin eta berriro errepikatu izan dute hedabideek; batez ere, Estellerrikoek, eskualde horretan baitago kokatua jauregia.

Kultura eta Turismo arloetako ardurak dituen departamentu baten sorrera, sektoreak daukan garrantzi gero eta handiagoa, eraikinaren kokaleku pribilegiatua, behean sinatzen duenak duela gutxi pertsonalki egiaztatu ahal izandako hondatze-prozesu taigabea, zeina esponentzialki areagotuko baita ez bazaie epe laburreko ekintzei helden, eta Nafarroako Gobernuak orain dela hain denbora gutxi garapen ekonomikoa sustatzeko lehentasunezko landa-eskualdeak zehaztu izana (hain zuzen ere, Urbasako mendilerroa haieran dago), horiek guztiak luzaroan eskaturikoa den proiektu bati berriro ekiteko beste hainbeste arrazoi dira.

Hori guztia ikusirik, hona galderak:

1.- Zer plan dauka Nafarroako Gobernuak Urbasako Jauregirako?

2.- Nafarroako Gobernuak zer ekintza dauka asmoa aurrera eramateko, oraingo legegintzaldian denbora-mugapean?

3.- Nafarroako Gobernuak lehentasunezkoztat jotzen al du Urbasako Jauregiaren gaineko jarduketak, kokatzen deneko landa-eskualdearen garapen ekonomikoa sustatzearen ikuspegitik?

Iruñean, 2009ko irailaren 17an

Foru parlamentaria: Román Felones Morrás

Galdera, Nafarroako herrietan haur parketak jarri, kudeatu, mantentze-lanak egin eta kontserbatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako herrietan haur parketak jarri, kudeatu, mantentze-lanak egin eta kontserbatzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 19ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 16an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du haur parkeei buruzko arauen gainean (PES-197). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25. artikulua araber, Nafarroako herrietan haur parkeak ezarri, kudeatu, mantendu eta kontserbatzea udalaren eskumena da guztiz; nolahi ere, haur parke horiek kokatuta dauden edo kokatu behar diren udal dermioetako udalei dagokie haietarako lizenziak ematea.

Instalazioaren sustatzailea da instalazioari buruzko proiektua egin behar duena. Proiektu hori teknikari eskudunak izenpetu beharko du eta dagokion lanbide-elkargoak bisatu beharko du. Horren salbuespena da sustatzailea toki entitatea bera denean, horrelako instalazioetan ohikoa den bezala. Izan ere, kasu horietan udala bera da, esate baterako, parkea egiteko eta instalatzeko kasuko kontratu publikoaren bitartez, esate baterako, berariazko baldintzen zerrenda bat ezar dezakeena, diseinuari, segurtasunari, mugikortasunari eta abarrei dagokienez. Ezaugarri horiek UNE-EN 1176 eta 1177 Europako arauan jasota daude Arau hori erabiltzen diren ekipoek eta materialek bete beharreko segurtasun arauen diseinuari buruzkoa da.

Arauk –zeina ez baita nahitaez bete beharrekoa– CE marka lortzeko behar diren gomendio teknikoak jasotzen ditu, baina Europako zuzentarau bat eta zuzentarau hori nazioko legeetara aldatzea beharko da Estatuko eta Nafarroako Foru Komunitateko antolamendu juridikoan ezarri ahal izateko. Estatuko agintariak ezarri dute arau libreaki aplikatzekoa dela, eta bi autonomia erkidegok baizik ez dute araudi hori egokitu: Andaluziak eta Galiziak. Gainerako autonomia erkidegoek, bai eta ukitutako enpresa-sektoreak ere, “Haur Parke baten Dekalogo” izenekoaren arabera jokatzeko dute. Deklarazio horrek, izan ere, segurtasun materialeko neurriak, kokapenari buruzko neurriak, ikuskapen eta kontrol neurriak, mantentze neurriak eta abarrekoak jasotzen ditu.

Nafarroan, ez dago horrelako instalazioei buruzko berariazko araurik. Funtzionamendu baldintzei eustea, horren barne direla segurtasun baldintzak ere, instalazioko sustatzailearen eta titularraren ardurak dira, eta, horrenbestez, ez da bidezkoa Nafarroako Gobernuak ikuskapen edo exekuzio jarduera berariazkorik egitea, eremu publikoetan egin ohi diren jarduez harantzago. Hala eta guztiz ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako langileek erabiltzaile adingabeen segurtasunean eragina izan dezaketen irregulartasunak atzematen badituzte, behar diren gomendio- eta zuzenketa-neurriak hartu ahal dituzte, kasuan kasu.

Halaber, udal autonomia eta toki entitateak berezkoak dituzten eskumenez baliatzea errespetatzeko printzipioari jarraituz, Nafarroako Gobernuak ez du aurreikusi gaiari buruzko inongo arau berariazkorik egitea, kontuan izanda ez dagoela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak arlo honetan esku-hartze publikoa izateko arrazoi objektiborik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2009ko ekainaren 30ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, jakiteko zenbat den ikasle/orduko kostua Zubiarte euskaltegi publikoan.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortes andreak galdera egin du jakiteko zenbat den ikasle/orduko kostua Zubiarte euskaltegi publikoan.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko ekainaren 12ko 59. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko uztailaren 17an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

María Luisa Mangado Cortesek, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuko Araudian Xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion.

Zenbat da ikasle/orduko kostua Zubiarte euskaltegi publikoan?

Ekainaren 3ko 115/2002 Foru Dekretuaren bidez Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren mendeko helduak euskalduntzeko ikastegiak eta euskararen irakaskuntzarako baliabide zentroa (EIBZ) antolatu ziren.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariak uztailaren 5ean emandako 365/2002 Foru Aginduaren bidez Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren mendeko "Zubiarte euskaltegia" helduak euskalduntzeko Ikastegi Publikoaren antolamendu eta funtzionamendurako erregelamendua onetsi zen.

Zubiarte Euskaltegian 27 irakasle daude (08/09 ikasturtean) eta EIBZn 9 irakasle. Ebazpen baten arabera zehazten dira zein eremu dagokion

Zubiarteri eta zein EIBZri: "214/2003 Ebazpena, Martxoaren 21ekoa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emanak, (Santiago Arellano), Zubiarte Euskaltegiak eta EIBZk eremu eta baliabide konpartituak erabiltzeko jarraibideak ematen dituen":

Lehena:

– "EIBZk ondoko eremuak izanen ditu: Baliabide Zentroa, funtsen biltegia, erabilera anitzeko gela-liburutegia, bilera gela eta autoikaskuntza gela.

Bigarrena:

– EIBZk lehen solairuko 4, 5, 6, eta 7 zenbakidun gelak erabiltzeko lehentasuna izanen du. (...)

Laugarrena:

– Zubiarte Euskaltegiak ondoko gela hauek erabil ditzake: autoikaskuntza gela, erabilera anitzeko gela-liburutegia, funtsen biltegia, eta autoikaskuntza gela, beti ere bi ikastegi horietako zuzendariak erabakitakoari jarraikiz.

Zubiarte Euskaltegiak eraikuntza osoko funtzionamendurako kudeaketa ekonomikoak egiten ditu (berogailua, elektrizitatea, ura, zaborra, tamaina txikiko konponketak, ...). Horretarako behar duen aurrekontua badu.

Xedeak ezberdinak direnean, zaila egiten da kalkulatzeko bi zentroen arteko gastuak. Horretarako, funtzionamendu gastuak banatu dira eraikinerako joaten diren ikasle guztien artean (euskarazko klaseetara joaten direnak eta A eta D ereduak berriazko prestakuntzan daudenak). Euskaltegiako ikasleen gastuei kendu zaizkie 08/09 ikasturteko matrikulagatik bildutako diru-sarrerak, haiek baitira diru-kopuru hori ematen dutena. Funtzionamendurako gastuak:

FUNTZIONAMENDURAKO GASTUAK	Uztaila-iraila	Urtarrila-ekaina	Oсотara
Aurrekontua	16.528,81	23.828,98	40.357,79
	41.322,02		41.322,02
	41.322,02		41.322,02

123.001,84

LANGILERIAREN GASTUAK	
08-09 ikasturtea	Osotara
Behin-behineko irakasleak	238.509,03 €
Irakasleak ez diren behin-behinekoak	27.983,46 €
Irakasle funtzionarioak	662.827,22 €
Funcionariolakasle ez diren funtzionarioak	44.507,87 €
Osotara	973.827,58 €

GASTUAK	
Funtzionamendua	123.001,84
Langileria	973.827,58 €
	1.096.829,42

08/09 IKASTURTEA			
Ikasleria	Iraila-otsaila	Otsaila-ekaina	Osotara
			582

IKASLERIA 08/09		
Ikasle kopurua		1.210,00
	A1	2.652,00
	A2	2.169,00
	B1	1.362,00
	B2	1.560,00
	C1	2.179,00
Klase orduak		11.132,00

Zubiarte Euskaltegiak gizarte osoari atek zabaltzen dizkio. Bere jardueretan parte hartu ahal izateko izena eman eta matrikularen diru-kopurua ordaindu behar da; horrela, 08/09 ikasturtean ondoko diru sarrerak izan zituen:

ZUBIARTE EUSKALTEGIAREN DIRU SARRERAK	
Zubiarte Euskaltegiko matrikulak	30.711,65 €

IKASLERIA 08/09		
	Zubiarte	EIBZ
Ikasle kopurua	1.210	883

Aipatutako datu ekonomikoak eta zenbakiak kontuan hartuz, hauexek dira Zubiarte Euskaltegiaren kostuak, betiere erabilitako irizpidearen arabera:

IKASLEEN KOSTUA	
Ikasle bakoitzeko gastua 08/09	838,20 €
Ikasleko eta klase-orduko kostua	91,11 €

Hauexek dira Zubiarte Euskaltegiak eta Euskara Atalak eman dituen datuak.

Iruña, 2009ko uztailaren 1a

Hezkuntza kontseilaria: Carlos Pérez-Nievas
López de Goicoechea

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Atzerritarren eta immigranteen eskubideen bermea dela-eta Nafarroako Arartekoak dauzkan eskumenak garatzeari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 21ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea Nafarroako Arartekoaren bulegoak eginiko hurrengo txostenaren berri izan duela: "Atzerritarren eta immigranteen eskubideen bermea dela-eta Nafarroako Arartekoak dauzkan eskumenak garatzeari buruzko txosten berezia".

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Txostenaren azalpena Foru Araubideko Batzordearen bilkura batean eginen dela xedatzea.

Iruñean, 2009ko irailaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Atzerritarren eta immigranteen eskubideen bermea dela-eta Nafarroako Arartekoak dauzkan eskumenak garatzeari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (27. or.).
- II. Nafarroako Arartekoaren egiteko instituzionala atzerritarren eta immigranteen eskubideen bermea dela eta (28. or.).
- III. Nafarroako Arartekoari buruzko Foru Legea aldatzeko proposamena, atzerritarren eta immigranteen eskubideen bermeari dagokionean (31. or.).

I. SARRERA.

2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak erabaki zuen "Nafarroako Arartekoari eskatzea txosten bat egin dezan immigrazioaren alorreko bere eskumenak garatzeari buruz".

Txosten horren eskaria Nafarroako Parlamentuak erakunde honi zuzendutako beste bi eskariri gehitu behar zaie, hain zuzen ere Nafarroako Arartekoak bera arautzen duen legearen arabera dauzkan eskumenak osatzeko eskariak. Lehendabizikoa haur eta nerabeak babesteari buruzkoa zen eta bigarena, berriz, emakumeen eta gizonen egiazko berdintasunari buruzkoa.

Halaber, Foru Araubideko Batzordean 2009ko ekainaren 3an bigarren txostena dela-eta –emakumeen eta gizonen egiazko berdintasuna bermatzeko erakundearen eskumenak zabaltzeari buruzko txostena– egindako agerraldian zehar, parlamentu-talde gehienek agertu zuten ados zeudela hurrengo bilkura-aldi arruntean lan-talde bat sortzarekin, hain zuzen ere Nafarroako Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean egin beharreko lege-aldaketak gauzatzeko egokitasuna aztertzeko. Parlamentuaren egoitzan agertutako aukera hori ikusita, erakunde honek Nafarroako Parlamentuari proposatu zion immigrazioari buruz eskatua zuen txostena atzeratzeko, hain zuzen ere lan-talde horretan erabakitzen zena jakin arte.

Hala eta guztiz ere, 2009ko ekainaren 26ko bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak egokiago ikusi zuen txostena egin zedin, hain zuzen ere 4/2000 Foru Legea aldatzeko, eta horregatik, 2009ko ekainaren 8ko erabakia berretsi zuen, alegia, Nafarroako Arartekoari berriz eskatzea erakunde horrek immigrazioaren arloan dauzkan eskumenak garatzeko txostena egin zezan.

Eskari horri erantzunez eta jada uztailaren 3an idatziz erantzundakoari jarraituz, honako txostena egin dugu.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak gaur egun dauzkan eskumen orokorrek beren barruan hartzen dituzte atzerritarren eta immigranteen eskubideak Nafarroako administrazio publikoekiko dauzkaten harremanen arloan; hori, halere, ez da oztopoa Eledunen Batzarraren erabakiari jarraituz, komenigarritzat jotzeko legez zehatz dadin, oraindik ere gehiago, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundeak egiteko horretan duen parte-hartzea.

Erakunde honen parlamentu-izaerak eta antolamendu juridikoan diziplina ezartzeko balio duen lege-erreserbaren printzipioak eskatzen dute eginkizun horiek zehazten direneko araua foru legearen mailakoa izatea.

Horrenbestez, kontua litzateke Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legea aldatu eta hartan beste artikulua bat sartzea, non atzerritarren eta etorkinen eskubideak bermatzeari buruzko berariazko eginkizunak jasoko liratekeen. Arlo horrek, bestalde, izaera horizontala dauka, komuna Nafarroako administrazio publikoen politika eta jardueretan, eta daukan dimentsioarengatik eta irismenarengatik Nafarroako Arartekoaren ikuskatze-eginkizun osoan proiektatzen da, edozein dela ere garatzen den jarduera.

II. NAFARROAKO ARARTEKOAREN EGITEKO INSTITUZIONALA ATZERRITARREN ETA IMMIGRANTEEN ESKUBIDEEN BERMEA DELA ETA.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari egiteko bat ezartzen dio: Konstituzioak eta Nafarroako Foru Erauztza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoak babesturiko eskubide eta libertateak defenditzea eta hobeki babestea (1. art.). Horrek, noski, jada adierazi den bezala, atzerritarren eta etorkinen eskubideak babestea ere hartzen du, erakundearen eskumenen esparruan.

Bestalde, aipatu foru legeko 19. artikulua ezartzen du berezko pertsonak nahiz pertsona juridikoek, inongo mugarik gabe, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoarengana jo ahalko dutela, eta ez direla horretarako oztopo izanzen nazionalitatea, egoitza edo auzotartasun zibila edo administratiboa, sexua, arraza, adingabekotasuna, herritarren lege-gaitasuna, espetxean edo beste nonbait sartuta egotea edo administrazio edo botere publiko batekiko lotura berezia edo haren

menpeko izatea. Bistan denez, nazionalitatea ez da legezko oztopo bat erakundeak eskaintzen duen babesa lortzeko.

Konstituzioaren esparruan, Espainiako Konstituzioko 13.1 artikulua ezartzen du atzerritarrei badagozkiela Espainian Konstituzioko I. tituluaren bermatzen diren askatasun publikoak, tratatuek eta legeak ezarritakoaren arabera.

Hori dela eta, baieztatu daitezke atzerritarren egoera juridikoa ez dela bakarria Espainian dau den eta bertako nazionalitatea ez duten guztientzat; aitzitik, modulazio garrantzitsuak badaude, nazioarteko itun eta legeen bidez sartutakoak. Nolanahi ere, atzerritarrek Espainian dituzten eskubideak aitortzeari dagokionez, urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa da garrantzitsua; haren bidez, izan ere, Espainiako atzerritarren eskubideak eta libertateak arautzen dira (aurrerantzean, Atzerritarren Lege Organikoa izenez aipatu dugu). Lege hori 8/2000 eta 14/2003 lege organikoen bidez aldatu izan da, eta epe laburrean beste aldaketa bat aurreikusten da.

Atzerritarren Lege Organikoaren lehenbiziko aipamenetako bat da atzerritarren oinarriko eskubideei buruzko arauak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren eta horiei buruz Espainian indarra duten nazioarteko itun eta akordioaren arabera interpretatu behar direla, eta ezin dela alegatu inongo sinesmen erlijioso edo konbikzio ideologiko nahiz kulturalik haien aurkako ekintzak edo jokabideak justifikatzeko.

1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala Nazio Batuen 183. Batzar Nagusiak onetsi eta aldarrikatu zuen. Haren lehenbiziko artikuluan ezartzen da gizon-emakume guztiak aske jaiotzen direla, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dutela.

Asiloa dakarten egoerak alde batera utzita, emigrazioa sortzen da, gehienetan, pertsonak beren jatorrizko herrialdeetan pairatzen dituzten biziraupeneko zailtasun larriengatik, eta horrexek bultzatzen ditu kanpora ateratzera beren bizi kalitatea hobetzeko aukera baten bila. Prozesu mingarri eta zaila da giza alderdian, eta konplexua ikuspuntu juridikotik, eta hartan egoera juridiko-administratibo desberdinak gertatu ohi dira.

Atzerritarren Lege Organikoak atzerritarren klase edo egoera juridiko-administratibo batzuk bereizten ditu. Horiek, orokorrean, hiru multzotan sailka daitezke: lehenengoa Europar Batasuneko estatu kideetako nazionalitatea duten atzerritarrek osatzen dute (haien araubide juridikoa da Europar

Batasuneko legedian eta aipatu lege organikoan –haien aldekoagoa den neurrian– ezarritakoa); bigarrena egonaldi-egoeran dauden atzerritarrek osatzen dute (egonaldi hori, printzipioz, laurogeita hamar egun baino gutxiagokoa izanen da); eta hirugarrena, aldi baterako egoitza edo egoitza iraunkorra duten atzerritarrek osatzen dute (horretarako, baimen administratibo bat behar da).

Aipatutakoez gainera, beste egoera batzuk ere badaude: esate baterako Schengen espazioko herritarra izatea; Suitzako herritarra izatea, eta egoera irregularreko atzerritarra izatea (lurralde batean bizitzea horretarako bidea ematen duen baimenik edo lege-araurik eduki gabe).

Eskubideei dagokienez, atzerritarrek legean aitortutako eskubideak dituzte, espainiarrekiko berdintasun baldintzetan. Eskubide horiek modu desberdinean daude erregulatuta atzerritar egoiliarrentzat –halakotzat hartzen dira Espainian bizi eta bertan egoitza izateko baimena dutenak– eta gainerako atzerritarrentzat, edozein dela ere haien egoera administratiboa. Eskubide horiek hiru kategoriatan sailka daitezke: norbanakoen eskubideak eta eskubide familiarak – Espainiako lurraldera sartzearekin, bertan zirkulatzearekin eta bertatik ateratzerekin lotutakoak– eskubide politikoak eta eskubide sozialak.

Eskubide horiek identifikatzen hasi aurretik, garrantzitsua da esatea Nafarroako Parlamentuak konstituzio kontraktasuneko errekurso bat (konstituzio kontraktasuneko 1707/2001 zenbakiko errekursoa) aurkeztu zuela Atzerritarren Lege Organikoko artikulua batzuen aurka. 8/2000 Lege Organikoaz emaniko testuari zegokion errekursoa. Horren ondorioz, konstituzioaren kontraktatzat deklaratu ziren 7.1 artikulua (biltzeko eskubidea), 8. artikulua (elkartzeko eskubidea) eta 11.1 artikulua (guztiz libreki sindikatze eskubideari zegokiona). Halaber, lortu zen konstituzioaren kontraktatzat eta deusez deklaratzeko “egoiliar” terminoa Atzerritarren Lege Organikoko 9.3 artikuluan (derrigorrezkoak ez diren irakaskuntzetara sartzeko eskubidea) eta 22.2 artikuluan (doako laguntza juridikorako eskubidea), atzerritar egoiliarren beren eskubideez baliatzea eragozten zutelako.

Legeak aitorturiko eskubideei dagokienez, honakoak dira funtsean:

1. Norbanakoen eskubideak eta eskubide familiarak, Espainiako lurraldera sartzearekin, bertan zirkulatzearekin eta bertatik ateratzerekin lotutakoak.

Multzo horren barruan honako eskubideak bereiz ditzakegu:

a) Espainiako lurraldera sartzeko eskubidea: eskubide hori Atzerritarren Lege Organikoko 25. artikuluan ezarritako betebeharrekin lotuta dago; halere, baimena ematen da, aparteko gauza gisa, baldintza horiek betetzen ez dituzten atzerritarrek sartzeko, gizabidezko arrazoiengatik, interes publikoengatik edo Espainiak hartutako konpromisoak betetzeko.

b) Atzerritar guztiak beren nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa –hain zuzen, beren jatorrizko herrialdean emandakoa– gordetzeko eskubidea eta betebeharra (Atzerritarren Lege Organikoko 4. artikulua).

c) Atzerritar egoiliarrek Espainiako lurraldean libreki zirkulatze eskubidea eta beren bizilekua hautatzeko eskubidea, bai eta Espainiako lurraldetik ateratzeko eskubidea ere (Atzerritarren Lege Organikoko 5. artikulua).

Familiako bizitzan eta familiaren intimitatean eragina duten eskubideei dagokienez, honakoak arautzen ditu Atzerritarren Lege Organikoak:

d) Familia berriz biltzeko eskubidea, atzerritar egoiliarrentzat (Atzerritarren Lege Organikoko 17. artikulua).

e) Atzerritar guztiak Espainian lortu dituzten diru-sarrerak eta aurrezkiak beren herrialdera edo beste edozeinetara transferitzeko eskubidea, Espainiako legeetan ezarritako prozeduren arabera eta aplikatzekoak diren nazioarteko akordioen arabera. Eskubide hori eraginkorra izan dadin, aurreikusten da Espainiako Gobernuak behar diren neurriak ezartzea transferentzia horiek errazteko (Atzerritarren Lege Organikoko 15. artikulua).

2. Eskubide politikoak:

a) Atzerritar egoiliarrek udal hauteskundeetan botoa emateko eskubidea, elkarrekotasun irizpideei erreparatuta, hain zuzen ere legeak edo hitzarmenek atzerritar horien jatorrizko herrialdeetan egoiliar espainiarrentzat ezarritako terminoetan (Atzerritarren Lege Organikoko 6.1 artikulua).

b) Udal batean errolatuta dauden atzerritar egoiliarrek Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen Legean aitortutako eskubideak izanen dituzte, eta entzunaldia eman ahalko zaie haiengan eragina duten gaietan (Atzerritarren Lege Organikoko 6.2 artikulua).

c) Biltzeko eta elkartzeko eskubidea: Atzerritarren Lege Organikoko 7. eta 8. artikuluek eskubide horretaz baliatzeetik kanpo uzten zituen egoera irregularrean dauden pertsonak. Arau horiek konstituzio kontraktatzat jo zituen Konstituzio Auzitegiak abenduaren 20ko 261/2007 zenbakiko epaian,

zeren eta atzerritar egoiliarrek eta egoera irregularran dauden atzerritarrek bereizteak Konstituzio-ko kasuko arauak urratzen baititu, ikuspuntu konstituzionaletik Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak eta nazioarteko itun eta akordioek deklaraturako edukari dagokionez.

3. Eskubide sozialak:

a) Atzerritarren Lege Organikoko 9. artikulua aitortzen du hemezortzi urtez beherako atzerritar adingabe guztiek hezkuntzarako eskubidea dutela espainiarren baldintza beretan. Eskubide horrek bere baitan hartzen du oinarrizko hezkuntzara –doakoa eta derrigorrezkoa– sartzea, kasuko titulazio akademikoa lortzea eta laguntzen eta beken sistema publikoan sartzea. Derrigorrezkoa ez den hezkuntzarako eskubideari dagokionez, Konstituzio Auzitegiak, azaroaren 7ko 236/2007 zenbakiko epaian, deklaratu zuen konstituzioaren kontrakoa dela hura atzerritar egoiliarrentzat mugatzea, izatez eragozten baitu Espainian legezko egoitza ez duten 18 urtez beherako atzerritarrek oinarrizkoa ez den irakaskuntzara sartu ahal izatea.

b) Lanerako eta Gizarte Segurantzarako eskubidea: Atzerritarren Lege Organikoak soilik aitortzen du aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten atzerritarrentzat (10.1 artikulua).

c) Atzerritar egoiliarren eskubidea, Europar Batasuneko kideak diren estatuetak nazionalen baldintza berdinetan, administrazio publikoen zerbitzuko kontratupeko langileak izatera, konstituzioak ezarritako berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioei jarraituz (10.2 artikulua).

d) Sindikatuetan libreki afiliatzeko eskubidea: Atzerritarren Lege Organikoko 11.1 artikulua askatasun sindikalaz baliatzeko eskubidea aitortzen zien soilik Espainian egoteko edo egoitza izateko baimena zuten atzerritarrei. Arau hori konstituzio kontraktotzat jo zuen Konstituzio Auzitegiak azaroaren 7ko 236/2007 zenbakiko epaiaren bitartez.

e) Grebarako eskubidea (Atzerritarren Lege Organikoko 11.2 artikulua).

f) Osasun laguntza jasotzeko eskubidea: Bizi diren Espainiako udalerriko udal erroldan izena emandako atzerritarrei, Espainian dauden hemezortzi urtez beherako atzerritar adingabeei eta Espainian dauden atzerritar haurdunei aitortzen zaien eskubidea da. Gainerako atzerritarrek larrialdiko osasun laguntza publikorako eskubidea dute gaixotasun larriak edo istripuak baldin badituzte (Atzerritarren Lege Organikoko 12. artikulua). Aurrekoa gorabehera, Nafarroak Nafarroako Foru Komunitateko osasun sistema sanitario publikoa-

ren osasun estaldura etorkin egoiliar guztientzat (uler bedi “bertan fisikoki dauden guztientzat”) zabaldu zuen, alde batera utzita haien legezko egoera edo egoera administratiboa zein zen, eta aitzindaria izan zen guztientzako estaldura ezartzen (Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 3.1 artikulua, maiatzaren 25eko 2/2000 Foru Legeaz emaniko testuaren arabera).

g) Atzerritarrek etxebizitzaren arloko laguntzarako sistema publikoan sartu ahal izateko eskubideari dagokionez, eskubide horren aitortpena atzerritar egoiliarrei dagokie bakarrik (Atzerritarren Lege Organikoko 13. artikulua).

h) Atzerritarren Lege Organikoak, 14.1 artikuluan, aitortzen du atzerritar egoiliarrek eskubidea dutela Gizarte Segurantzaren prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko espainiarren baldintza beretan, atzerritar egoiliarrek baldin badira.

i) Atzerritar egoiliarren gizarte zerbitzu eta prestazioetarako eskubidea, bai zerbitzu eta prestazio orokor eta oinarrizkoei, bai berariazkoei dagokienez, espainiarren baldintza beretan (Atzerritarren Lege Organikoko 14.2 artikulua).

j) Atzerritarrek oinarrizko gizarte zerbitzu eta prestazioetarako eskubidea dute, edozein dela ere haien egoera administratiboa (Atzerritarren Lege Organikoko 14.3 artikulua).

Atzerritarrek Espainian dituzten eskubideei buruzko aipamen horrek agerian uzten du status ezberdintasunak daudela atzerritar egoiliarren eta egoera irregularrean dagoen atzerritarren artean; alde hori larriagotu egiten da normalean egoera irregularrean dauden atzerritarrek ez dakitelako zer eskubide dituzten.

Estatistikako Institutu Nazionalak emandako azken datuen arabera, Nafarroako Foru Komunitatean, 2009ko urtarrilaren 1ean, 70.149 atzerritar zeuden; hau da, % 11.14.

Aurreko datua bat dator atzerritar ugarik Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundera jotzarekin aitortuak dituzten eskubideei buruzko informazioa eta eskubide horietaz administrazio publikoetan baliatzeko moduari buruzko informazioa jasotzeko. Behin baino gehiagotan, egoera irregularrean dauden atzerritarrek halako mesfidantza bat agertzen dute administrazio publikoetara joateko argibide horiek eskatzera, dela administrazioen funtzionamendua ez dutelako ezagutzen, dela Atzerritarren Lege Organikoan haiek kanporatzeko edo beren jatorrizko herrialdera itzularazteko ezarritako neurriak aplikatzearen beldur direlako.

Nafarroako Arartekoak immigrazioaren arloan egiten duen jarduerak beste ikuspuntu batzuetatik

ezin soma daitekeen errealitatearen azterketa egiteko parada ematen digu; izan ere, gure kabuz nahiz alde batek eskatuta egiten ditugun ikerketen bitartez lortutako informazioaz gainera, erakundeak tresna egokiak ditu lehen eskutik atzemateko pertsonen eguneroko arazoak, zerbitzu publikoak eskatzerakoan topatzen dituzten arazoak edo Nafarroako Administrazio Publikoetatik hartzen diren neurrien eraginkortasuna; betiere, helburu batekin: atzerritarren integrazioa benetakoa eta eraginkorra izatea. Egoera, gainera, bereziki konplexua da atzerritarrek adingabeak direnean (Foru Komunitateko lurraldean bakarrik edo gurasoekin nahiz tutorearekin egon daitezke)

Erakunde honek atzerritarren eta etorkinen eskubideak bermatzearen arloan jasotzen dituen kexei dagokionez, bereizi behar dira, batetik, Nafarroako administrazio publikoek esparru sektorial desberdinetan garatzen dituzten integrazioko politika publikoak garatzeari buruzko kekek eta, bestetik, atzerritartasunari eta naziotasunari buruzko kekek, funtsean atzerritarrek izapide administratiiboak egiteko edo bisatuak lortzeko batzuetan topatzen dituzten zailtasunak azaltzera zuzendutakoak. Beste batzuetan, kexa jaso eta Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoari igortzen zaio, zeren eta horrelako kekek Estatuko Administrazio organoen jardunari baitagozkio, eta, horrenbestez, Nafarroako Arartekoaren erakundearen eskumenean esparrutik kanpo garatzen baitira. Hala eta guztiz ere, dezentetan espedienteak ebazteko agintari eskudunekin, zehazki Kanpo Arazoetarako Ministerioarekin eta Estatuko Arartekoarekin kudeaketak egin behar izaten ditugu.

III. NAFARROAKO ARARTEKOARI BURUZKO FORU LEGEA ALDATZEKO PROPOSAMENA, ATZERRITARREN ETA IMMIGRANTEEN ESKUBIDEEN BERMEARI DAGOKIONEAN.

Batetik, Immigrazioaren fenomenoak Nafarroan hartu duen protagonismoak, zeinak berarekin baitakar Nafarroako administrazio publikoek zalantzarik gabeko ahalegin bat egin behar izatea integrazio efektiboko politika bat garatzeko, eta, bestetik, Nafarroako Parlamentuak erakunde honen ikuskatze-esparrua zabaltzeko agertu duen borondateak, gomendagarri egiten dute zehaztasun handiagoz definitzea Nafarroako Arartekoak arlo honetan dituen eginkizunak. Horri dagokionez, komenigarria litzateke, erakunde honen irizpidearen arabera, uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean beste artikulua bat sartzea, hain zuzen ere honako hau zehazteko:

A) Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak zaindu eta, kasua bada, bermatu beharko ditu

antolamendu juridikoak atzerritar eta etorkinei aitortzen dizkien eskubideak, bera arautzen duen foru legeak esleitzen dizkion eginkizunen esparruan eta Nafarroako Foru Komunitateak dauzkan eskumenean barruan eta foru legeko 1.3 artikuluan aipatzen diren administrazioei eta entitateei dagokionez, alde batera utzita haien nazionalitatea, adina edo egoera administratiiboa zein den, edo barnetegi batean ote dauden, edo beste edozein egoera pertsonal, sozial nahiz ekonomiko.

Horretarako, pertsona horiek beren eskubide publikoek baliatzeari buruz egiten dizkieten kontsultei erantzunen die, aurkezten zaizkion kekek ebatziko ditu, bere kabuz ikerketak egiten ditu, proposamenak jasoko ditu eta Nafarroako Foru Komunitateak immigrazioa dela-eta egiten dituen politika publikoak gainbegiratuak ditu, eta, kasua bada, egokitzat jotzen dituen gomendioak eta iradokizunak egiten ditu.

Uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeak, erakunde hau arautzen duenak, II. tituluan azaltzen du zein izanen diren Nafarroako Arartekoak bere jardunean izanen dituen eginkizunak eta bete beharko duen prozedura. Hain zuzen ere, 18.1 artikuluan esaten du haren jardura zertan datzan: 1.3 artikuluan aipatzen diren Nafarroako administrazio publikoen egintzak, omisioak eta ebazpenak argitzea. Horretarako, foru parlamentarien ekimenez (19.2 artikulua), beste edozein pertsona fisiko nahiz juridikoren ekimenez (19.1 artikulua) edo bere kabuz jardun ahalko du (18.1 artikulua).

Erakunde honek egindako beste txosten batzuetan, adierazi bezala, zerbitzu publikoak hobetzeko proposamenak jasotzea ere ez da inolako beritasuna Nafarroako Arartekoaren jardunean, zeren eta bera arautzen duen legeko 16.b) artikuluan esaten baita Arartekoari dagokiola gomendioak egitea, ekintza bidegabeak zuzentzeko ez ezik Administrazioaren zerbitzuak hobetzeko ere.

B) Nafarroako Arartekoak txosten bereziak edo monografikoak egin ahalko ditu ebaluatzeko Nafarroako administrazio publikoek eta Nafarroako Arartekoari buruzko Foru Legeko 1.3 artikuluan aipatzen diren entitateek nola errespetatzen dituzten atzerritarrek eta etorkinek Nafarroan dauzkaten eskubideak.

Txosten bereziak egiteari dagokionez, Nafarroako Arartekoari dagokion eginkizun bat da, hura arautzen duen foru legeko 36.2 artikuluan ezarritakoaren indarrez. Esate baterako, 2008an, erakundeak txosten berezi bat egin zuen bidaidarik gabeko adingabe atzerritarrek Nafarroako Foru Komunitatean duten egoerari buruz.

C) Atzerritartasunarekin edo immigrazioarekin lotutako kexak eta proposamenak Gorte Nagusiek izendatutako Arartekoaren eskumena direnean, hari igorriko zaizkio ahal bezain arin, eta inguruabar hori interesdunari jakinaraziko zaio.

Aipatutako eginkizunen betetzea guztiz bateragarria da 4/2000 Foru Legeak ezartzen duen jarduteko esparru orokorrarekin: eskubideen bermea, kontsultei erantzutea, proposamenak jasotzea, txosten bereziak egitea eta Gorte Nagusietako Arartekoari bere eskumenekoak diren kexak edo proposamenak igortzea.

Azkenik, iragar daiteke ezen, Nafarroako Gobernuak egin duen eta berriki aurkeztu den

Etorkinak Gizarteratzeko Planeko ebaluazio-dokumentuak (68. orrialdea) agertzen duen bezala, arau-aldaketak planteatzen badira autonomia erkidegoetako administrazioek esku hartu ahal izan dezaten migrazio-fluxuak kontrolatzeko eta erregulatzeko politiketan, halako moduan non kudeaketa exekutiboko eskumen batzuk esleitu ahal izanen zaizkio Estatuak araugintzaren arloko eskumenak dauzkan gai batzuetan, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoaren erakundeari egokituko zaiola esparru horretan Nafarroako administrazio publikoek darabilten jarduna ikuskatzea, hain zuzen ere Nafarroako Arartekoari buruzko Foru Legearen babesean (1. artikulua).